



TORIBIO

ALZAGA

**heriotzaren 50.
urtemuga**



Iztunde Eskola. Eibar 1928

TORIBIO ALZAGA

EUSKAL TEATROAREN ALGARA

50 URTE

Aurten, 1991n, 50 urte beteko dira Toribio Alzaga hil zela. Tristeia ere bada halako gizonez urteurrenetan besterik ez gogoratzea, baina hala eta guztiz, gaurkoan ere halakoetan esan ohi dena berrituko dugu, alegia, ezin utz dezakegula aukera hau pasatzen Toribio Alzaga euskal antzerkigintzaren historian nor eta zer izan zen oroiterazi gabe. Pozik geundeke, honako lan apal honek balioko balu Alzagak merezi duen omenaldi handiaren atariko edo irakurketaren pizgarri bederen.

NOR ZEN TORIBIO ALZAGA?

Ezer baino lehen, gizonaren bizitza kontatuko dugu laburki, eta ondoren garaiko testuinguruan kokatzen saiatuko gara, haren lana eta lan honen garrantzia azalduaz.

① Toribio Alzaga Anabitarte Donostiako “31 de Agosto”^② kalean jaio zen, 1861eko Apirilaren 16an. Bi anai-arreba zituen. Bigarren gerra karlistaren garaian Ipar Euskal Herrian izan zen, Lapurdiko Ziburun. Ez zen bera hara babestutako Hegoaldeko bakarra —ikusten denez^③ erbeste bide honek erro luzeak ditu gure herrian—, han zen Marzelino Soroa ere, eta honek idatzitako **Iriyarena** bertan jokatu zutenean han zen antzezleen artean gure Toribio ere, artean hamahiru urteko mutil koxkorra.

Lapurdiko kostan ereindako antzerki-hazi hura azkar eta indartsu sustraitu zen Alzagaren baitan, gure teatroko arbola mardulena bihurtzeko gerora.^④ Aita zurginak aroztegirako nahi zuen arren, barren-barreneraino sartua zuen Toribiok antzerki-lari-harra. Berehala ziren^⑤ Toribio eta bere anaia Baleriano Soroarekin batean komeriak prestatzen: Luistarren saloian, “Centro Católico” izenekoan, baita bere etxeko ganbaran ere. Paperak ikasi eta jokatu, jantziak paratu eta beste mila lan izaten zuten



⑥


hemen. 1888an idatzi eta saritu zioten bere lehenengo antzerkia, **Aterako gera!**, eta ondoren zenbait opera sortu zuen, baina guzti honetaz izango dugu gero ere mintzatzeko parada.

⑦

Alzagaren bizitzan, eta euskal teatro osoaren bilakaeran, garrantzi bereziko data bat, urte bat, eman beharko bagenu, 1914 izango litzateke hori, seguru asko. Urte horretan, Lukas Zulaiak aurretik prestatutako bidetik ⑧ Abelino Barriola Donostiako zinegotzi abertzale eta antzerkizaleak, Euskal Iztundea edo "Academia de Declamación Vasca" delakoa sortarazteko proiektua aurkeztu zuen Udalean. Proposamena onartu zen; ⑨ bertako Katedradun izateko Alzaga eta Elizondo aurkeztu ziren; Elizondo azken orduan beldurtuta edo eretiratu, eta Alzaga aukeratu zuten epaimahaikoek ahobatez. ⑩ Euskal Iztundearen garrantzia ulertzeko, kontuan izan ordura arte ez zela Euskal Herri osoan izan inongo antzerki-eskolarik, ezta —itxura denez— teatrotik eta teatrorako bizi zen profesionalik ere, eta euskara eta euskaraz irakasten zen eskolarik ere oso gutxi. Berrikuntza hauez gain, euskal teatroak inoiz izan duen loraldi eta garapen indartsuena abiarazi zuen Iztundeak, eta Iztundearen barruan Alzagak.

Une honetatik aurrera, lan ugari eta handiak egin zituen Alzagak, eta denak zenbatzea zaila den arren, batzuen batzuk azalduko ditugu:

- Euskarazko eskolak ematen zituen, eta irakasle ona zela esaten da. Euskaltegirik edo ikasmetodorik ez eta euskaldunberririk ia sortzen ez zen garai hartan, ez zen lan makala izango eginkizun horretan ihardutea. Alor honetako idazkirik berak zuzenean utzi ez badigu ere, ⑪ Alzagaren ikasle izandako Raimundo Herrero Torradijkok **Estudio elemental de la gramática vasca** izeneko liburua burutu zuen, maisuaren eskoletan oinarritua.
- Antzerki lan bat taularatzeak berekin dituen eginbehar guztiak berak ateratzen zituen aurrera. Obra asko idatzi, edo bestela egokitu; gero berriz, jokalaria bakoitzak zer eta noiz esan behar zuen, koaderno banatan idazten zuen eskuz (Antzertiko artxiboan aurki daitezke gaur egun eskuizkribu hauek, oso




kaligrafia dotorez kopiatuak); entsaio eta emanaldak zuzendu; apuntadore lanetan aritu; dekoratu eta bestelako xehetasun guztiak prestatu.⁽¹²⁾ Jantziak josten adibidez, bere emazte eta alabak aritzen omen ziren.

- Aktoreei irakastea, noski, zeregin garrantzitsuenetakoa zuen, eta bere eskutik paseak dira garai hartako⁽¹³⁾ antzezlerik ezagunenak, hala nola Beorlegi, Egileor, Etxeberria, Ugartetxea... Filme edo bideorik ezean, ez dugu haien orogarririk gordezten, baina orduko lekukotasunek ematen digutenez, oso onak eta ospetsuak omen ziren, gaur egun Aizpea Goenaga, Ramon Agirre, Elena Irureta edo Mikel Garmendia izan daitezkeen bezala.

- Guzti honekin ez dirudi antzerki berriak idazteko denbora gehiegi eratuko zitzaionik, baina urtean zehar ⁽¹⁴⁾ Donostian idazten ez zituenak uda partean burutzen zituen Aizarnan, eskuizkribuetako amaiera-datek adierazten diguten legez. Obra hauetako gehienak 20ko hamarkadan idatzi zituen, 60 urte bete eta gero beraz, eta besterik gabe ere honek ederki asko erakutsiko liguke Alzagaren langile-ezpala.
- Ez dakigu nondik ateratzen zuen horretarako beta eta astirik, baina lztundeko lanaz gain ⁽¹⁵⁾ **Euskal Erria** aldizkariko zuzen-dari ere izan zen aldi batez, eta 75 bat artikulu argitaratu zituen bertan, laburrak eta irrigarriak gehien-gehienak.
- Bestalde, garai hartan Donostian egiten ziren lore-joko, bertso txapelketa eta halakoetan epaimahaiko izan ohi zen.

Alzagaren kultur lana une batez alde batera utzi eta bere famili bizitzara itzul gaitezen. ⁽¹⁶⁾ Mutilzahar bidean zihoan baina 1901ean ezkondu egin zen, 40 urte zituela beraz, Maria Pilar Fernández Mujikarekin. Madrildarra zen hau baina Aizarnako familiakoa; hain zuzen ere, emaztearen ⁽¹⁷⁾ Aizarnako etxean eman ohi zituen udako opor egunak lehen esan dugun bezala, antzerki berriak idazteko aprobetxatuz. Urtearen gainerakoa, Donostiako San Juan kalean zuen etxean. ⁽¹⁸⁾ Bost seme-alaba izan zituen, baina horietatik lau bera bizi zela hiltzen ikusi zituen Toribiok, komeriantearen bihotzeko arantza. Bostgarrena, Maria Luisa, bizi da oraindik ere.


- ⁽¹⁹⁾ 1930eko Abenduan omenaldi handia egin zioten, bazkari, bertso-saio, antzerki eta guzti. Lanean segitu zuen hala ere.
- ⁽²⁰⁾ 1936an, faxistak Donostian sartutakoan “dimitierazi” egin zioten, eta hori nahiKoa ez zela gartzelara sartu ere bai, 75 urte zituela, euskal kulturaren aztarna guztiak ezabatu nahian bezala. Gaixo zegoen eta laster askatu zuten. Arnasestua zuen, eta ⁽²¹⁾ gaitz honek hilko zuen 1941eko Maiatzaren 27an, laurogei urte zituela.



DONOSTIAKO TEATROAREN BIZKAR-HEZURRA

Alzaga bere garaiko Donostlako teatroaren bultzagile nagusia eta muina izan zela diogunean ez da pentsatu behar momentu eta txoko jakin bateko antzerkigintzaz bakarrik ari garenik, ^②Euskal Herri osoaz baizik. Izan ere, gaur egun arte Euskal Herrian inoiz izan den teatro kaletar moderno bakarra Donostiako Eskola izenaz ezagutzen dugun mugimendua da, 1876-1936 hirurogei urtez bizi, eta indartsuen zegoela gerrak hondatu arte iraun zuena. Ez dugu esan nahi aurretik inon izan ez zenik, baina aurreko horiek elizkizun edo errito gisako ekintzak ziren, edo bestela oso aldikako, urri eta eragin gutxi-koak. ^③Gaur egun teatroa ulertzen dugun bezala ulertuta (idazlea, antzezleak, antzokia eta abar) mugimendu honek eman zigun lehenik euskaraz; eta ez dugu berriro izan oraintsu arte; eta oraingo antzerkiarekin konparatuz gero ere, talde-ugaritasun, arrakasta eta eragin sozialari dagokienez, beharbada ordukoa aterako litzateke garaile.

Teatro-molde honen hasiera lehen ere aipatu dugun **Iriyarena** izan liteke, Donostiako iheslariak Donibane Lohitzuneko "El trueno" elkartean antzeztua, eta hantxe zen Toribio Alzaga, praka motxeko mutikoa. **Iriyarena** hori elebiduna zenez, agian euskarazko lehen obra Soroa beraren **Anton Kaiku** dela esan beharko genuke; nolana ere, han zen gure Alzaga, hasiera-hasieratik, eta hortxe jarraituko zuen urtetan zehar; horregatik idatzi zuen ⁽²⁾ Antonio M^a Labaienek euskal teatroaren historia egitean: "Alzaga jauna da Euskal-Antzerkia'ri eutsi diona, eragillea ta pizkortu duna, nekatzeke ta laguntza gutxi izan arren". Bistakoa da hori, kontuan hartuz gero bera izan zela antzerki gehien idatzi zuena, obra gehien zuzendu, emanaldi gehien eskaini eta aktore gehien hezi, inolako zalantzarik gabe.



23
ORRINA

Zenbakietan txapeldun atera zaigu eta ezin da ukatu zenbakien pisua, baina kalitatean ere bultzada handia eman ziola esan behar. Barre erraza eragiten zuten arlotekeriak baino antzezkizun landuagoak bilatu zituen, euskal kulturari merezi

duen duintasuna eman nahian. Aurrerapen eta bultzada honen berri ematen digu Orixek, Alzagaren omenaldia deia eta idatzi zuen artikuluaaren amaieran: "Euskal-teatroa Alzaga'k oiia-za-pietatik atera digula esan diteke; oiñez ere ederki erakutsi dio, ta bide sendoan yarri; kozkortuxe ere egin dala esan genezake, ta edozein erritako teatroaren maillera laister igoko dan uste ona degu". Alzagak ahalegin guztiak egin zituen bide horretan; aurreraxeago iritsi ziren beste batzuk, Barriola adibidez, eta Labaienek eramango zukeen gorago, gerra galtzeak bidea moztu ez balu.

ZENBAT ANTZERKI IDATZI ZITUEN TORIBIO ALZAGAK?

Balitz eta balu alferrikako horiek utzi eta gatozen Alzagak benetan egin zuenera. Antzerkigintzaren alde hainbat eta hainbat lan egina zela ikusi dugu lehen, baina hemendik aurrera arlo bakar bat aztertuko dugu: idatzi zituen antzerkiak; eta hasteko, galdera bat dugu: zenbat idatzi zituen? Guztira hogeitama-



rrren bat sortu zituela esan liteke, aurreko euskal antzerkien moldaketa pareia eta beste bizpahiru itzulpen barnean hartuta.

- ② Horietatik dozena inguru argitaratu ziren liburu gisa, eta gainerakoak eskuizkribuetan aurki daitezke lehen aipatu dugun Antzertiko liburutegian. Ez denak ordea²⁹ badira zenbait obra, tituluz jakin arren inon topatu ezin izan ditugunak, hala nola, **Zalaparta**, **Gizon ona**, **Elelzatxoko ardazlea** (Gorostidirena berez, eta Alzagak berriztatua), **Oleskari berriya**... Bestalde, baliteke han edo hemen ezagutzen ez den Alzagaren antzerki berririk azaltzea ere.

Ezagutzen ditugun antzerkiez idatziko dugu ondoren. Gehiegi dira banan banan komentatzeko, eta ez guke zerrenda hutsa ere eman nahi. Beraz, generoaren arabera sailkatuko ditugu eta mota bakoitzari buruzko iruzkinen bat egin, ondoren ezaugarri orokorrak ikusteko.

Bakarrizketak

Hiru aurkitu ditugu: “**Arpuxa**” **kalian** (1922), **Urdallekua** (1925) eta **Txingurri** (1935). Era honetako antzerkiak oso ugari ziren Donostiako teatroan, eta Soroagandik hasita gehien landu zen estiloetako bat dela esan liteke³⁰. Mozkor, baserritar eta xelebreen barregarrikeriak erakusten dituzte eta izugarrizko harrera ona zuten ikusleen artean, arrakasta honek maila handiagoko euskal teatroa nahi zutenak (Barriola eta) haserretzen bazituen ere³¹. Laburrak dira, eta antzerki-jaialdietan beste obra batzuen artean edo hauen atsedean aldian eman ohi ziren.

Elkarrizketak

- ③ Beste hiru ditugu: **Axentxi ta Kontxexi** (1914), **Etxletan** (1918) eta **Biyak bat** (1934); azken hau desberdin eta atipiko samarra da; beste biek ezaugarri hauek dituzte: neskaxa biren arteko elkarrizketa edo berriketa bizi-biziak dira, laburrak, ekin-tza eta eskenategirik gabeak, berritsukeriaren plazer hutsa.



Ekitaldi bakarrekoak

Halakoa zen, baina erdaraz idatzia, Alzagaren lehen antzerkia: **Martin Tiñacu** (1886), erdaraz gaizki egiten duen protagonista barregarria duena. Hori alde batera utzita, beste bost egin zituen: **Aterako gera!** (1888), **Bernaiñoren larriyak** (1915), **Txibiribiri** (1918), **Biozberak** (1920) eta **Burruntziya** (1926).

Aterako gera! da Alzagaren lehen euskal lana. Denboran tarte handia dago besteekin, eta osterantzean ere bai. Soroa maisuari eskaini zion, eta Soroagandik bikain ikasia zuen xelebrekeriak agertzearen artea, bai eta hizkera bizi, adierazkor eta “koxkeroa” ere. Geroko lanen aldean euskara zabar samarra duela esan behar hala ere: esate baterako, **z** gehienak **s** egiten ditu eta **ts** asko **tz**. Hona hemen adibide bat: “**Bañon, askenian, subek negar asko egiñ-atikan erostunak berdindu biar isaten diskik suben eskasiyak**”.

Egituraren aldetik ere, lehenbiziko lan hau herren samar gelditzen dela esan behar; hizketa da ia sostengu bakarra. Giza-⁽³³⁾

semeak eta emakumeak antzerkian ez nahasteko garai hartako ohiturari jarraituz, gizonezkoentzat bakarrik egina da.


Beste laurak modernoagoak edo dira. Badute korapilo bat, egoera nahastu eta gero askatzen duena; gertaera xumea da baina trama ondo lortua eta erritmo azkarrez kontatua. Euskara ere askoz zuzenagoa da, ez bait zen alferrik Alzaga irakasle bihurtu. Guzti honen adibidetzat **Burruntziya** har dezakegu, Alzagaren lan onenetakoa, onena agian. Pertsonaiak ondo eta azkar marrazturik daude; hemen ez dago, elaberri batean bezala nortasuna eta psikologia lantzerik eta horregatik pertsonaiak tipo bihurtzen ditu; obra batean baino gehiagotan azaldu, erraz identifikatu eta barrea eragiten digutenak. Obra honetakoak ditugu, adibidez, ³⁴ Joxe Joakin kaskailu ahoberoa baina andrearen beldur bizi dena, Talo alproja oihularia, Mañaxi etxe-koandre matxarda diruzale agintzalea... Hizkuntza zuzenagoa dela esan dugu lehen, baina ez hori bakarrik, oso bizia ere bai, solasari txinpartak eta zukua ateratzen diona. Zoragarriak dira hemen, adibidez, Joxe Joakinen irainak, edo Taloren losintxak: **katramillosa, mamuxel, zirrikituna, mazuztxori, txirripixtiña, pillinpustrera, makarrosiña...**

Guzti hauek obra laburrak dira, ordu erdi baino gutxiago iraun ohi dutenak; tankera honetakoak dira garaiko euskal teatroan ugarienak, eta gehien lantzen zen generoa zenez onenak ere bai.

Koralak

³⁵ Bi antzerki ditugu era honetakoak: **San Tomaseko feriya** (1892) eta **Zanpantzar** (1924). Koral izen horrekin adierazi nahi dugu ez dutela protagonistarik, jende eta ekintza asko biltzen da taula gainean; ez dute argumentu handirik, hari mehe bat gehienik, baina ez da hori axola duena: Donostiako bi jai handietan (³⁶ Santo Tomas, Inauterietako astelehena) girotutako

antzerki kostunbristak dira, barregarriak, laburrak, festa girokoak, kantari, txantxagileak...



Gogoan izan behar da bi egun hauek eta San Sebastian eguna zirela euskal antzerkiarentzat seinalatuak, eta horietan beti izaten zela funtzioa.

Operak

Joan zen mendearen bukaeran eta honen hasieran gailen zebilen opera Europa osoan, eta baita Euskal Herrian ere. Erdaraz euskaraz baino gehiago, eta Bilbon Donostian baino maizago. Dena dela, euskarazkoak ere egin ziren, eta hauetako batzuetan izan zuen Alzagak zerikusirik. ⁽³⁾ Buenaventura Zapirain musikariak konposaturiko **Txanton Piperri** (1899) eta **Anboto** (1906) operetako hitzak idatzi zituen, eta bestelako xehetasunik ezagutzen ez diogun **Gli kornamenti** izeneko batekoak ere bai.

Bi ekitaldikoak

38

Bi antzerki ditugu era honetakoak: **Bost urtian** (1922) eta **Amantxi** (1923). Gehiegi ere ez direnez, merezi duke bakoitzaz zerbait eransteak.

39 **Bost urtian** Euskalzaleak elkarteak argitaratu zuen 1929an, antzerki sail bati hasiera emanaz. Siplea du argumentua: senar-emazteak bidaian doaz; abiatu aurretik zenbait jendekin hitz egiten dute, eta bost urteren buruan itzulitakoan lagun horiekin bilduko dira ostera. Bost urte horietan, 1914-1920 inguruan, zernolako aldaketak gertatu diren ikusiko dugu, eta barregarri gertatuko zaizkigu. Urte horietan politika eta ekonomi aldaketa izugarriak izan ziren, eta hauen berri jasoko dugu, teatroa ia beti izaten bait da, nahita edo nahi gabe, bere garaiaren eta gizartearen ispilu. Hemen adibidez, protagonista positiboa, Pantxo, Ameriketara aberastutakoa da, eta Lukax da gaiztoa, hemen bertan azpikerien bitartez aberastu den korridorea.

40 **Amantxi**-k berezitasun nabarmen bat du: XVI. mendean girotua dagoela. Honek, dirudien baino garrantzi handiagoa du: jantzi eta dekoratu landuagoak eskatzeaz gain, goragoko asmoak adierazten ditu, maila handiagoko antzerkia egiteko borondatea. Ez da beraz harritzekoa, Alzagak berak bere obraren artekotzat jotzea **Amantxi** hau, **Bost urtian** eta **Irritza**-rekin batean.

Hiru ekitaldikoak

Ezagutzen ditugunak hauexek dira: **Tantarrantan** (1923), **Neskazar** (1924), **Mutilzar** (1925), **Osaba** (1926), **Babalora** (1927).

Hauek baino luzeagoa, bakarra sortu zuen —itzulpenak alde batera utzita—, **Andre Joxepa Tronpeta** (1920): sorgin giroko obra nahasi, konplexua da, jokalaria, musikari eta dekoratu asko eskatzen duena, handinahia, eta emaitza antzeztua epaitu ezin

badugu ere, eskuizkribuko gidoian ondo burutu gabea, are buru gabe samarra ere. Dena dela, hau alde batera utzi eta hel diezaiegun besteei.

④⑩ Ia denak —**Osaba** salbu—, irri antzerkiak dira, pertsonaia bitxi, barregarriak dituztenak. Neskazaharrak eta mutilzaharrak batetik, Alzagak oso gustokoa zuen gaia eta gaur egun ere arrakasta handia duena; totelen hizketa berezia, loterian aberastu nahi duenaren gainean egiten diren barreak...


Osaba desberdina dela esan dugu, eta era honetakoen artean onentxoena, interesgarriena dela erantsiko genuke. Be-
④⑪ rezitasunik aipagarriena, gizarte hiritar, aberats eta goi mailakoan giroturik egotea da. Badirudi horrek ez lukeela zertan hain nabari eta nabarmena izan Donostia bezalako hiri batean, baina egiazki Donostian idatzi eta jokatzeko ziren antzerki gehienak baserri girokoak ziren edo bestela herri txiki eta jende xehe-barregarria agertzen zutenak; hauxe zen ikuslegoak gehien eskertzen zuena gainera, eta ez dirudi gauzak gehiegi aldatu direnik ere, **Ama begira zazu**-k izan duen arrakasta ikusita.



Aurrerapen edo jauzi hau beharrezkoa zuten euskal gizarteak eta teatroak ordea. Teatroak, arte oso bat egituratzeko konmeriak ez ezik lan serio eta handinahiagoak ere behar direlako. Gizarteak, euskaltzaleek eta abertzaleek orohar, gero eta pisu gehiago zutelako Gipuzkoan. 1915 arte oso gutxi ziren, baina urte honetatik aurrera hasi ziren indartzen. Alzaga bera, oso politikazalea ez badirudi ere jeltzaleekin zegoen.

④Giroa jasotze honetan, Barriola dugu Alzagaren lagun eta aitzindaria, 1915ean **Gai dagonaren indarra** idatzi zuenetik; gerora ere, **Osaba**-ko gaia hartu eta beste antzerki bat idatziko zuen Barriolak: **Goi argi**.

④Giro jasotze honek zenbait arazo zekarren berarekin, batez ere euskararena. Garai hartako Donostian euskara neskame-morroiekin hitz egiteko eta kontu xeheez aritzeko hizkuntza zen; zeregin garrantzitsuagoetarako erdara zerabilten. Obra honetan hautsi egiten da joera hori, aberatsak eta aristokratak euskaraz ari bait dira. Pentsatzekoa da, orduko ikusleei, guri ETBn beltzak euskaraz lehenengoz ikustean bezalako inpresioa egingo ziela.



Itzulpen edo moldaketak.

Euskarazko aurreko antzerkietatik (Soroaren **Ezer ez ta festa** eta beste) egindako moldaketak alde batera utzita, beste hizkuntzetatik eginak hiru ezagutzen ditugu: Bretón de los Herreros-en **La batelera de Pasajes** obratik ateratako **Pasai'ko batelzaia** (1923), **Ramuntxo** (1920) eta **Irritza** (1924). Lehen-dabizikoa ez dugu ikusi eta aski ezezaguna da; beraz, beste biez arituko gara.

④⑤ **Ramuntxo**, lehenik eta behin, elaberri bat izan zen, Pierre Loti idazle frantsesak sortua. Loti bidaiari porrokatua izan zen, paisaia exotikoak maite zituen, eta besteak beste, etxe bat zuen Hendaian. Ramuntxo nobela hau Euskal Herrian dago girotua: maitasuna eta pilotariak, mojak eta kontrabandoa... Oso eza-guna izan zen bere garaian, eta Tovar delako duke batek teatrorako moldaketa bat egin zuen, gazteleraz. Moldaketa hau oinarritzat hartu eta euskarazkoa egin zuen Alzagak, elkarriketa batean esaten zuenez, programa betetzeko obraren bat behar zuela eta...

④⑥ Nolanahi ere, arrakasta handia eskuratu bide zuen moldaketa honek, hemezortzi emanaldi egin bait zituzten Iztundekoek, orduko marka guztiak hautsiz. Gipuzkoa osoan ez ezik, Bizkaian (Lekeitio) eta Lapurdin ere (Hendaian) eman zuten.



Lekunberri'ra ibilaldia. Hotelean. 1923

Bada hemen kontu bitxi bat, aipatu gabe utzi nahi ez nukeena. Liburuetan ez baizik egunkariren batean aurkitu dugu honen berri. Azterketa sakonagoa mereziko luke gorabehera honek, baina jaso dugun bezalaxe eskainiko dizuegu. Hara: Hendaian ikusirik edo, ⁽⁴⁸⁾ **Ramuntxo** Parisen ematea proposatu omen zieten, baita egin ere Odéon antzoki ospetsuan. Orduko euskal teatroaren ikuskizun garrantzitsuena, eskenategi eta dekoratuetan sekulako gastu eta ahaleginak eginda —baita behiak ere taula gainean—. M. Antoine delako bat omen zen eskena-buru, eta emanaldia egundoko porrota izan omen zen; kritikarien ezten zorrotzak inoiz baino zorrotzago, batez ere M. Antoineren kontra. Eta Toribio Alzaga eta besteak, korrika eta presaka atera omen ziren Paristik, lotsagorrituta. Ez da filme baterako ixtorio kaxkarra.

⁽⁴⁹⁾ **Irritza** beste pelikula bat da: Shakespeare-ren **Macbeth** ospetsuaren moldaketa. Moldaketa idatzi dut eta ez itzulpena, ingelesezko eta euskarazko bertsioen artean alde handia dagoe-lako. Alde hau zertan datzan zehaztuko dugu, gaingiroki bada ere. ⁽⁴⁹⁾ Euskarazkoan, izenburua aldatzeaz gain, pertsonaia asko desagertu dira, bai eta hauek egin edo esaten zituztenak ere. Mintzaldiak laburtu eta xinpletu egin dira, kunplimendu goratsuegiak soildu, leku-izen arrotzak ezabatu, elementu intelektual asko desagertarazi (ez ordea sentimentalak). Ekitaldi eta agerraldien egitura ere aldatuta dago, beti ere ekintzak gutxitze aldera.

⁽⁵⁰⁾ Aldaketa guzti hauek norabide bera dute: ezer zailik ikusten eta entzuten ohiturik ez zegoen publikoari gauzak erraztu egin behar, xamurtu, bidea leundu. Eta hala ere, jendearen erantzunari erreparatuz, badirudi ez zuela nahikoa leundu, erraztu.

⁽⁵¹⁾ Alzagak aitortu zuenez, arratsaldeko publiko jantziagoak ondo hartu omen zuen, baina gaueko saioan ezin. Kritikarien artean ere, gehienek biziki txalotu zuten, baina zenbaiten ustez goiztiarregia zen, eta kanpoko gauzak geureganatu aurretik euskal herri-antzerkia gehiago indartu behar zela zeritzoten.

Goizegi zen, agian, eta jauzia handia: barre algarara ohitutako ikusleentzat tristeegi, serioegi; hizketaldiak ere luzeak, oso luze eta diskurtsu gisakoak euskal antzerkietako berriketa bizien aldean; euskara bera ere, itzulpenean prestatu gabeko hizkuntza izanik, zail samar. Ehundaka hitz eta kontzeptu itzuli behar izan zituen Alzagak, asko moldatu arren, obraren izpiritu gordeko bazuen; eta orduko joera gaur baino garbizaleagoa zenez, atzizkien bidez euskal hitz berriak asmatu behar izan zituen. Beharbada goizegi zela esan dugu, baina ez: hizkuntzak aurrera egingo badu, saio ausartak behar dira, eta gaur Shakespear euskaraz entzuteko gai bagara, aurretik Toribio Alzaga bezalakoak saiatu zirelako da.



Lapurdi'ra ibilaldia. Autobusean. 1924

DOHAIAK ETA MUGAK

Alzagaren antzerkiak zein diren ikusten aritu gara, bai eta horiei buruzko zenbait iruzkin egiten ere. Hala ere, eritzi orokorragoak emateko tenorea heldu da. Zer nolako idazlea genuen? Zein ziren bere bertute eta akatsak? Galdera hauei erantzuten hasteko, ekar ditzagun hona Koldo Mitxelenaren hitzak:

- 52) "Garai batean euskal teatroa landu zutenen artean, uste dudanez, gailen eta nabarmen agertzen zaigu Alzaga, bere-berea zuen sailean behintzat. Komeriaz ari naiz, esku trebea baitzuen, era berri ausartetara jo gabe, jendeari parre eragiteko.



Plaentxi'ko oroigarria. 1927

Zorrotza zen pertsonak eta pertsonen xelebrekeriak begiz jotzeko, bazekien korapilo politak lotzen eta, lotzen ez ezik, baita lotu ahala askatzen ere, ez ikuslearen buru haustetarako, atseginerako baizik".

- 53) Begi-erne eta bizkorra zen Mitxelena kritika lanetan, baita barkabera ere, euskaraz hain gutxi egonik dena onerako zen garaian behintzat, eta garai zahar hari dagokio komentario hau.
- 53) Komerian maisu zela esaten digu, usadiozko komeria moldean; eta komeria laburretan, erantsiko nuke nik. Korapiloak eta xelebrekeriak zituen lanabes nagusi, eta pertsonaien elkarrizketa biziak horiekin batean.

Komeriaz haruntzago joan nahi duenean, edo antzerki luze osatuagoak egin nahi dituenean hasten dira Alzagaren arazoak, orduan ageri bait dira bere mugak. Hiru aipatuko nituzke nik:

- a) Benetako nortasuna duten pertsonaiak sortzeko zailtasuna. Beti dira "tipo"ak, eta horrek laburretan ondo ematen badu ere, antzerki sendagoetan ñabardura gehiago eskatu ohi da.
- b) Kosta egiten zaio obra luzeetarako trama eta azpitramarik lortzen, eta honen ordeztan, Alzagak primeran menderatzen zuen elkarrizketa txoro samarren baliapidera jotzen du behin eta berriz.
- c) Ekintzaren garapena josteko erabiltzen duen teknika ia bakarra paralelismoa da. Hau da, aurretik azaldutako pasarte eta pertsonaia berak, zedarritzat hartzen den gertaera jakin baten ondoren agertuko dira berriro, lehengo jokaerarekiko kontrastea eraginez. Errepikapen formula hau ageri da, esate baterako, **Bost urtian, Amantxi, Tantarantan, Neskazar, Mutilzar eta Babalora**-n, neurri txikiago edo handiagoan.

Honekin ez dut Alzagaren balioa gutxietsi nahi, inondik ere. Bere alderdirik onenak zein diren zehaztu nahi genuke, laudorio orokorra ahaztura osoa bezain hutsala izan bait daiteke. Bahea erabili behar dugu beraz, eta bahearen bitartez lan honen azken puntuari heldu.



Antzeztalde osoa Leizarola'ko ikastetxean

TORIBIO ALZAGA GAUR

Toribio Alzaga, bere garaian, euskal teatroko errege izan zela esan dezakegu. Euskal Iztundea sortu eta handik hamalau urtera, berrogeitamar antzerki zituzten emanak, luze eta labur, eta guztira 150 bat emanaldi, Donostian asko, Gipuzkoan barrena gehienak, eta Bizkaia eta Lapurdin ere bai batzuk. Egilerik antzeztuena Alzaga bera zen, bere taldearen beharrei begira idazten zuelako edo. Errepublika garaian talde asko sortu zen euskal herrietan, eta hauek ere maiz jotzen zuten Don Toribioren lanetara. ⁽⁵⁵⁾ Mugimendu hura gerrak txikitu zuela esana dugu. Frankismoaren lehen eraso bortitzenen ondoren, poliki-poliki hasi ziren berriz ere euskal antzerkiak, ⁽⁵⁶⁾ eta Euskal Iztundearen bigarren aroa abiatu zen 1953an Maria Dolores Agirre-
ren zuzendaritzapean eta bere ahaleaginei esker. Aurreko mai-
suaren lorrazak zenbateraino irauten zuen konturatzeko, ⁽⁵⁷⁾ aski bedi esatea lehen sei urteetan beti eman zutela Alzagaren antzerkiren bat; horiez gain Soroa eta Barriolaren lan bana.

Eta gero? Gero ia ezer ere ez. Desagertu bezala egin zitzaigun. ⁽⁵⁸⁾ Antonio Zavalak, liburu zaharrak berreskuratzeko bere lanean Auspoa bilduman kaleratu zituen haren komeria



onenetako batzuk eta **Ramuntxo**, eta argitalpen hauei esker irakurri ahal izan genuen askok Alzaga. Hala ere, bazirudien antigoaleko gauza bat zela, gaur egungo teatrorako ez interesik ez baliorik ez zuena.

Guk ordea, Alzagaren lanak baliagarriak izan daitezkeela uste dugu.⁽⁵⁹⁾ Elkarrizketaren teknikan batez ere, atzerriko eredueta makurtuegi gauden sasoi honetan, Alzagaren azterketa oso komenigarria izan daiteke antzerki idazle eta aktoreentzat. Ikasketetarako ezezik, antzezteko ere izan dezake interesik.⁽⁶⁰⁾ Azpeitiko Antxieta taldea adibidez, bere azken ikuskizunean, beste antzerki batzuekin batera Alzagaren **Txingurri** barkarrizketa ari da jokatzeko.


Euskal teatroa biziko bada, aurrera begiratu behar du eta gauza berriak egin. Baina gauza berriak egin nahi dituen herriak, teatroak, bere iragana ere ezagutu behar du eta handik ikasi. Atzera begiratu eta Alzagaren algara lasaiarekin topatzea osasungarri eta ongarri izango zaigu, Euskal Herriak XXI. mendean behar duen teatroa denon artean bilatu eta asmatzeko.

Xabier Mendiguren

Beasainen, 1991ko Martxoan

**TORIBIO ALZAGAK IDATZI ETA ITZULITAKO
ANTZERKI OBRA NAGUSIENAK**

- 1.- AMANTXI
- 2.- ANBOTO
- 3.- ANDRE JOXEPA TRONPETA
- 4.- ARPUXA KALIAN
- 5.- ATERAKO GERA
- 6.- ASENTXI TA KONTXEXI
- 7.- BABALORA
- 8.- BERNAIÑOREN LARRIYAK
- 9.- BIYAK BAT
- 10.- BIOZBERAK
- 11.- BOST URTIAN
- 12.- BURRUNTZIYA
- 13.- ETXIETAN
- 14.- EZER EZ, TA FESTA
- 15.- GIZON ONA
- 16.- GLI KORNAMENTI
- 17.- IRRITZA
- 18.- KASKAGORRA
- 19.- MARTIN TIÑACU
- 20.- MUTILZAR
- 21.- NESKAZAR
- 22.- OLESKARI BERRIYA
- 23.- OSABA
- 24.- PASAIKO BATEL ZAYA
- 25.- RAMUNTZO
- 26.- SANTO TOMAS'EKO FERIYA
- 27.- TA GAÑONTZEAN
- 28.- TANTARRANTAN
- 29.- TXANTON PIPERRI
- 30.- TXINGURRI
- 31.- TXIBIRIBIRI
- 32.- URDALEKUA
- 33.- ZALAPARTA
- 34.- ZANPANTZAR



TORIBIO ALZAGAren eskutik Donostiako Euskal Iztunde Eskolak taularatu zituen antzerki obrak

ANTZERKIA	EGILEA	URTEA
BERNAIÑOREN LARRIYAK	ALZAGA, T.	1915
ASENTXI TA KONTXEXI	ALZAGA, T.	1915
GAI DAGONAREN INDARRA	BARRIOLA, A.	1915
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1915
MIKELATXO	GANBOA, J.	1915
¡BARRENEN ARRAI	SOROA, M.	1915
BERNAIÑOREN LARRIYAK	ALZAGA, T.	1916
ASENTXI TA KONTXEXI	ALZAGA, T.	1916
LAGUN TXAR BAT	BARRIOLA, A.	1916
GAI DAGONAREN INDARRA	BARRIOLA, A.	1916
ATZERTOKIYA	ELIZONDO, J.	1916
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1916
MIKELATXO	GANBOA, J.	1916
¡BARRENEN ARRAI	SOROA, M.	1916
OLESKARI BERRIYA	ALZAGA, T.	1917
ARANTZA	AROSTEGI, F.	1917
LAGUN TXAR BAT	BARRIOLA, A.	1917
MEZA BERRIYA	BARRIOLA, A.	1917
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1917
ANTZERTOKIYA	ELIZONDO, J.	1917
AZKEN BELTZA	S. IRURE, K.	1917
ROTXILEN SAKELTXOA	TALDE LANA	1917
TXIBIRIBIRI	ALZAGA, T.	1918
ARANTZA	AROSTEGI, F.	1918
GAI DAGONAREN INDARRA	BARRIOLA, A.	1918
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1918
LORETI	ELEIZEGI, K.	1918
IZIARTXO	GARITAONAINDIA, B.	1918
OLESKARI ZARRA	OLAIZOLA, J.	1918
EZER EZ, TA FESTA	SOROA, M.	1918
ROTXILEN SAKELTXOA	TALDE LANA	1918
EZER EZ, TA FESTA	ALZAGA, T.	1919
BERNAIÑOREN LARRIYAK	ALZAGA, T.	1919
ZORIGAIZTOKO EGUNA	BARRIOLA - OLAIZOLA	1919
LORETI	ELEIZEGI, K.	1919
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1919
IZIARTXO	GARITAONAINDIA, B.	1919
OLESKARI ZARRA	OLAIZOLA, J.	1919
BIGAR ARTE? JA, JA!	OLAIZOLA, J.	1919
BIOZBERAK	ALZAGA, T.	1920

TXIBIRIBIRI	ALZAGA, T.	1920
ARANTZA	AROSTEGI, F.	1920
GAI DAGONAREN INDARRA	BARRIOLA, A.	1920
LORETI	ELEIZEGI, K.	1920
AITONA TA BILLOBA	GARITAONAINDIA, B.	1920
RAMUNT XO	LOTI - ALZAGA	1920
ANDRE JOXEPA TRONPETA	ALZAGA, T.	1921
ARANTZA	AROSTEGI, F.	1921
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1921
AITONA TA BILLOBA	GARITAONAINDIA, B.	1921
ONENTZARO GABA	IRAOLA, B.	1921
RAMUNT XO	LOTI - ALZAGA	1921
EZER EZ, TA FESTA	SOROA, M.	1921
ANDRE JOXEPA TRONPETA	ALZAGA, T.	1922
ARPUXA KALIAN	ALZAGA, T.	1922
BOST URTIAN	ALZAGA, T.	1922
BIXENTE	ARTOLA, P.	1922
KASKAGORRA	BEORLEGI - EGILEOR	1922
ELEIZAT XO ARDAZLEA	GOROSTIDI, J.	1922
RAMUNT XO	LOTI - ALZAGA	1922
JOXE GREGORIO TA MAI		
PILIPAREN EZKONTZA ERABAKIA	TELLERIA, A.	1922
EZKONTZEKO GOGUA...		
BAÑAN ALPERRIK	TELLERIA, A.	1922
ETXIETAN	ALZAGA, T.	1923
AMANTXI	ALZAGA, T.	1923
TANTARRANTAN	ALZAGA, T.	1923
ZALAPARTA	ALZAGA, T.	1923
BIOTZ ONA	AMUNARRIZ, A.	1923
MAITASUNAK	BARRIOLA, A.	1923
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1923
ONGILLEAREN SARIYA	GARITAONAINDIA, B.	1923
ONENTZARO GAUA	IRAOLA, B.	1923
EZER EZ, TA FESTA	SOROA, M.	1923
JOXE GREGORIO ETA MAI		
PILIPAREN EZKONTZA ERABAKIA	TELLERIA, A.	1923
BOST URTIAN	ALZAGA, T.	1924
ZANPANTZAR	ALZAGA, T.	1924
BIOZBERAK	ALZAGA, T.	1924
NESKAZAR	ALZAGA, T.	1924
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1924
ATZERTOKIYA	ELIZONDO, J.	1924
BATEKO URRIA	ILLARRAMENDI	1924
MACBETH - "IRRITZA"	SHAKESP. - ALZAGA	1924
AMANTXI	ALZAGA, T.	1925
BIOZBERAK	ALZAGA, T.	1925
NESKAZAR	ALZAGA, T.	1925

GIZON ONA	ALZAGA, T.	1925
MUTILZARRA	ALZAGA, T.	1925
MACBETH - "IRRITZA"	SHAKESP. - ALZAGA	1925
EZER EZ, TA FESTA	SOROA, M.	1925
JOXE GREGORIO ETA MARI		
PILIPAREN EZKONTZA ERABAKIA	TELLERIA, A.	1925
NESKAZAR	ALZAGA, T.	1926
MUTILZARRA	ALZAGA, T.	1926
GIZON ONA	ALZAGA, T.	1926
OSABA	ALZAGA, T.	1926
BURRUNTZIYA	ALZAGA, T.	1926
MEZA BERRIYA	BARRIOLA, A.	1926
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1926
RAMUNTXXO	LOTI - ALZAGA	1926
BOST URTIAN	ALZAGA, T.	1927
BIOZBERAK	ALZAGA, T.	1927
OSABA	ALZAGA, T.	1927
BURRUNTZIYA	ALZAGA, T.	1927
NESKAZAR	ALZAGA, T.	1927
TXIBIRIBIRI	ALZAGA, T.	1927
BABALORA	ALZAGA, T.	1927
ATERAKO GERA	ALZAGA, T.	1927
ARANTZA	AROSTEGI, F.	1927
RAMUNTXXO	LOTI - ALZAGA	1927
EZER EZ, TA FESTA	SOROA, M.	1927
JOXE GREGORIO ETA MARI		
PILIPAREN EZKONTZA ERABAKIA	TELLERIA, A.	1927
MUTILZARRA	ALZAGA, T.	1928
OSABA	ALZAGA, T.	1928
TANTARRANTAN	ALZAGA, T.	1928
OLESKARI BERRIYA	ALZAGA, T.	1928
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1928
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1928
JOXE EBAIXTO	NUÑEZ ARIZMENDI, I.	1928
PORRU SALDA	NUÑEZ ARIZMENDI, I.	1928
MUTILZARRA	ALZAGA, T.	1929
OSABA	ALZAGA, T.	1929
NESKAZAR	ALZAGA, T.	1929
OLESKARI BERRIYA	ALZAGA, T.	1929
TANTARRANTAN	ALZAGA, T.	1929
BOST URTIAN	ALZAGA, T.	1929
ZORIGAITZ MALKOAK	AROCENA, A.	1929
BIXENTE	ARTOLA, J.	1929
GIBELAUNDI	ARZELUS, A.	1929
LAGUN TXAR BAT	BARRIOLA, A.	1929
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1929
IZIARTXXO	GARITAONAINDIA, B.	1929
ISKIÑA MUTRIKUN	IRAOLA, B.	1929

RAMUNT XO	LOTI - ALZAGA	1929
PORRU SALDA	NUÑEZ ARIZMENDI, K.	1929
JOXE GREGORIO ETA MARI PILIPAREN EZKONTZA ERABAKIA	TELLERIA, A.	1929
ANDRE JOXEPA TRONPETA	ALZAGA, T.	1930
AMANTXI	ALZAGA, T.	1930
ETXIETAN	ALZAGA, T.	1930
ATERAKO GERA	ALZAGA, T.	1930
BIOTZ BERAK	ALZAGA, T.	1930
BERNAIÑOREN LARRIYAK	ALZAGA, T.	1930
BURRUNTZIYA	ALZAGA, T.	1930
EZER EZ, TA FESTA	SOROA, M.	1930
LORE BAT LOITAN	AMONDARAIN, A.	1930
EUSKAL EGUNA	LABAIEN, A.	1930
BOST URTIAN	ALZAGA, T.	1931
GAI DAGONAREN INDARRA	BARRIOLA, A.	1931
EUSKAL EGUNA	LABAIEN, A.	1931
ANDRE JOXEPA TRONPETA	ALZAGA, T.	1932
DOLLORRA	ELIZONDO, J.	1932
EUSKAL EGUNA	LABAIEN, A.	1932
NESKAZAR	ALZAGA, T.	1933
BIOZBERAK	ALZAGA, T.	1933
BIXENTE	ARTOLA, P.	1933
MACBETH - "IRRITZA"	SHAKESP. - ALZAGA	1933
OSABA	ALZAGA, T.	1934
MUTILZARRA	ALZAGA, T.	1934
BIAK BAT	ALZAGA, T.	1935
ARANTZA	AROSTEGI, F.	1935
GARBIÑE	ELEIZEGI, K.	1935
ELEIZATXOKO ARDAZLEA	GOROSTIDI, J.	1935
ANDRE JOXEPA TRONPETA	ALZAGA, T.	1936
TA GAÑONTZEAN	ALZAGA, T.	1936